

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1054

1597/2016 EBAZPENA, abenduaren 19koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Pilar Regulez Ariño Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari medikoa, berak hala eskatuta, kargutik kentzen duena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendarinagusiaren apirilaren 10ko 449/2014 Ebazpenaren bidez (2014ko maiatzaren 6koa EHAA, 83. zk.), Pilar Regulez Ariño andrea Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari mediko izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Pilar Regulez Ariño Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari medikoa, berak hala eskatuta, kargutik kentzea eta egindako zerbitzuak eskertzea.

Bigarrena.– Ebazpen hau 2017ko urtarrilaren 9an sartuko da indarrean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 19a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.